



ALBOAN

Etorkizun-aukerak



■ Esperientziak ALBOAN

1. Garapenerako bidean.
Tokian tokiko parte-harte testigantzak. (2007)
2. Etorkizun-aurkerak. (2007)

Etorkizun-aukerak



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: LLuis Magriñã, Renaud de Villaine, Eduardo J. Bofill,
Gonzalo Sánchez-Terán, Errefuxiatuen Jesuiten
Zerbitzua eta ALBOAN

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.


Inprimaketa: Lankopi S.A.


Lege-gordailua: BI-1171-07

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere
helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Aurkezpena	5
1. kapitulua:	9
Egungo errefuxiatuak eta lekualdatuak	
Lluis Magriñá apaiz jesuitak idatzitako testuaren laburpena	
Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren nazioarteko zuzendaria.	
2. kapitulua:	29
Liberia barneko errefuxiatuen gizarteratzea	
Renaud de Villaine.	
EJZ Liberiako advocacy arduradun nazionala.	
3. kapitulua:	41
Etorkizun-aukerak	
Eduardo J. Bofill Tortosa.	
EJZ Liberiako psikologoa.	
4. kapitulua:	121
Bizitzeko leku bat	
Gonzalo Sánchez Terán.	
EJZ Afrika mendebaldeko advocacy arduradun erregionala.	
5. kapitulua:	131
EJZ Internazionala	





Aurkezpena





Eskuetan duzun argitalpena munduan bizi den jende pila batek pairatzen duen egoeraren testigantza bat da. Beren etxeetatik irten eta berriro ere zerotik hasi behar izan duten pertsonen ari gara. Pertsona horiek gehien errepikatzen duten esaldietako bat hau da: “ez dago norberaren etxea bezalakorik”. Hala ere, zenbait arrazoiengatik, berenak utzi behar izan dituzte.

Errefuxiatuak, lekualdatuak, etorkinak... dira. Hitz ugari erabil daitezke horiek izendatzeko, eta ez dute garrantzi faltarik. Errefuxiatuek nazioartearen onarpena lortu dute eta, gutxienez teoriarik, beren herrialdeko mugak pasatu behar izatean, nazioarteko komunitateak bizirauteko eta hezkuntza eta osasun-asistentzia izateko eskubideak bermatzen dizkie. Baina, gaur egun, lekualdatutako pertsonak, beren herrialdean bertan mugitzen diren horiek, dira nazioarteko komunitateari erronka larrienak aurkezten dizkietenak.

Argitalpen honetan, 2003tik 2006ra bitartean Liberiako Salala errefuxiatu-eremuan bizi izan zen jendearen testigantza eta bizimoduak azaltzen dizkizugu. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuarekin batera, proiektu batean parte hartu zuten; hasierako itxaropenak gainditu egin zituen proiektu horrek. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak dituen hiru “izateko arrazoi” nagusietako batean oinarrituta zegoen proiektua, **zerbitzua ematean**. Kasu honetan, errefuxiatu-eremura lekualdatutako pertsonen hezkuntza-zerbitzua eskainiz laguntzea zuten helburu. Laguntza hori ematen hasi ziren, baina areago jo nahi zuten, modu egokian **lagun egin** nahi zieten. Helburu horrekin, eskolan parte hartzen zuten pertsonen eskakizunei eta beharrei erantzun zuten proiektu bat diseinatu zuten. Egoera nola ikusten zuten, zer desio zituzten eta antzeko galderetan oinarrituz, ikasleen ahoz-

ko espresioa eta espresio artistikoa lantzen hasi ziren, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruan. Lana oso interesgarri eta baliogarrizat jo zen pertsonak espresatzeko aukera izan zezaten, eta hezkuntza-komunitatera eta errefuxiatu-eremuko beste pertsonengana ere zabaldu zen.

Argitalpen honen edizioarekin, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren xedearen hirugarren oinarria bultzatu nahi dugu, errefuxiatuak **defendatzea** alegia. Liberian dauden lekualdatuen egoeraren berri eman dugu, Lurreko beste txoko ugarian gertatzen denaren adibide gisa. Aurkezpen honen helburua da errealitate hori ezagutaraztea eta horrelako egoerarik izan ez dadin lan egiteko animatzea; halaber, horrelakoak gertatzen direnean proiektuaren protagonista lekualdatuen bizitzak defendatzea du xede.

Aurten, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren sortzaile Arrupe Aitaren jaiotzaren mendeurrena ospatzen dugu, eta apustu bikoitza egiten dugu:


- lan honetan parte hartzen duten pertsona guztien lana aitortzea eta
- errefuxiatu eta lekualdatuek bizi duten egoerari buruz ohartaraztea; izan ere, nagusiki Hegoaldeko herrialdeetan, beren etxeetara bueltatu nahian dabilta.

1. kapitulua

Egungo errefuxiatuak eta lekualdatuak

Luis Magriñá apaiz jesuita.
Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren
nazioarteko zuzendaria





Egun, behartuta lekualdatutako 50 milioi pertsona inguru daude, eta horietatik %80 emakumeak eta haurrak dira. Horrenbestez, munduko 120 pertsonatik batek bere etxetik alde egin behar izan du. 50 milioi errefuxiatu horietatik erdiak Afrikan daude.

Arrazoiak askotarikoak dira: etniagatiko, erlijioagatiko edo ideia politiko-engatiko jazarpenak, edo gerratik eta indarkeriatik ihes egitea. Herri osoek jasan dituzte gatazka armatuak edo jazarpenak, eta indarkeriatik ihes egin dute. Hala ere, azken urteotan, hedadura berriak eta zorrotzak hartu ditu.

1980. urtean, 5 milioi errefuxiatu zeuden, baina kopuru horrek gora egin zuen, eta 18 milioi errefuxiatu baino gehiago zeuden 1993. urtean; egun, 15 milioi errefuxiatu (muga zeharkatu duten pertsonak) baino gehiago daude. 70eko hamarkadan, bost herrialdetan baino ez zeuden lekualdatuak –mugak zeharkatzen ez dituzten familiak eta taldeak eta, horrenbestez, errefuxiatutzat hartzen ez direnak–, 1999. urtean, ordea, berrogei herrialdeak zeuden lekualdatuak eta, egun, 30 milioi baino gehiago direla esan daiteke.

Zein dira, egun, errefuxiatu berriak? Burundiko, Sudango, Kongoko Errepublika Demokratikoko, Sri Lankako edo Kolonbiako lekualdatuak. Batzuetan, zailagoa da pertsona horiei laguntzea errefuxiatuei laguntzea baino; izan ere, gatazkek luzatu egiten dira, gobernua bera da erasotzaillea, lekualdatzeak etengabeak dira eta talde armatuak daude lekualdatutako biztanleria zibilaren artean. Ez dago, gainera, lekualdatuak babesteko ardura duen nazioarteko erakunderik. Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNUR) errefuxiatuak babesteko agindua du; ez du, ordea nazioarteko mugak zeharkatzen ez dituztenak babesteko agindurik. Beste maila batean daude hirietan babesa eskatzen dutenak, eta pertsona

horiek arreta handiagoa behar dute. Babesa eskatzen duten pertsona horietariko zenbaitek errefuxiatu-estatutua lortzen dute, baina estatutu horretatik kanpo geratzen dira gehienak. Eta hainbat behar dituzte; esaterako, janari beroa, harrera, ikasketa-bekak eta lege-laguntza. Babes-egitua- rako egokiak defendatuko dituen norbait ere behar dute.

Indarkeriatik ihesi, mugak zeharkatzen dituzten askok etorkinentzako atxi- loketa-zentroetan amaitzen dute. Pertsona horien atxiloketak erakusten du nazioarteko sistemak zer ezintasun duen immigrazioa kudeatzeko. Ondorio psikologikoak ikaragarriak dira; izan ere, herritik ihes egiteaz gain, askatasuna galtzen dute. Hala azaltzen du Sudango mutiko batek:

"17 urte ditut. Sudandik iritsi nintzen hona, esklabo-trafikatzaile batzuengandik ihes egin ondoren. Itsasontzi batean ezkutatu eta Alemaniara iritsi nintzen; han, laguntza eskatu nien afrikar batzuei. Legez kanpoko lan bat lortu nuen, baina atxilotu egin ninduten. Alemaniar agintariek atzera bota zuten nire babes-eskaera; izan ere, legearen arabera, berriro esklabo gisa harrapatua izateko arriskua ez da "jazarpen politikoa". Atxilotuta egin nituen zenbait aste eta, egun batean, Sudango enbaxadara eraman ninduten; han, ukatu egin zidaten herritartasuna, Sudango hegoaldekoa izateagatik. Alemaniako gobernuak ezin nau kanporatu. Nire herritartasunari buruz gezurra esan niela uste dute, eta nongoa naizen ikertzen ari dira. Sei hilabete daramatzat atxilotuta".

Sudaneko errefuxiatua

200 milioi pertsona inguru mugimenduan; horietatik 120 milioi atzerrira lan bila joandakoak eta haien familiak dira. Afrikako 20 milioi langile jatorrizko herrietatik kanpo bizi dira, eta han egiten dute lan; kalkulu horien arabera, gainera, Afrikako hamar langiletik bat bere herritik kanpo biziko da, eta bertan lan egingo du 2015. urtean.

Kongoko Errepublika Demokratikoa: hainbeste gatazka-urteren ondoren, 2 milioi lekualdatu baino gehiago daude Kongon, eta ondoko herrialdeetan bizi diren errefuxiatu ugari bertakoak dira.

Burundin 400.000 pertsona inguru lekualdatu ziren, eta herrialdearen luze-zabalean banatutako 226 kanpamenduetan kokatu ziren; 300.000 pertsonak ihes egin zuten Tanzaniara.



Duintasuna proban jarrita

“Errefuxiatua izan naiz ia nire bizitza guztian. Gogoan dut nire herritik, Burunditik, alde egin nuen eguna, Kongoko Errepublika Demokratikora (lehen, Zaire) joateko; nire gurasoekin eta bost anai-arrebekin ihes egin nuen. 17 urte nituen orduan. 1972ko apirilaren 25a zen. Errefuxiatuen esparruan eman nituen urteetan, nire emaztea izango zena ezagutu nuen. Gure seme-alabak errefuxiatuen esparruan jaio ziren. Handik ihes egin behar izan genuen Zairen gerra piztu zenean, 1996. urtean. Tanzaniara ihes egin genuen. Bi hilabetez, eliza batean bizi izan ginen, eta aintziran arrantza egiten genuen. Baina janaririk ez genuenez, ahuldu eta gaixotu egin ginen; hori zela eta, errefuxiatuen beste esparru batera joatea erabaki genuen. Orain hemen bizi naiz, Ndutako esparruan, Tanzaniako mendebaldean. Gogorra da esparru batean bizitzea, nahiz eta bi aste behin janaria jaso. Esparrua baso batean dago eta, horrenbestez, ezin dugu lurra landu. Ezin dugu, halaber, esparrutik irten, zaila baita horretarako baimena lortzea. Zailtasun asko eta poztasun gutxi daude errefuxiatuontzat, baina egin ezin dugun gauza bakarra itxaropena galtzea da. Errefuxiatu moduan 28 urte eman ondoren, Jainkoak bakarrik daki noiz itzuliko naizen Burundira.”

Nathaniel, Burundiko errefuxiatu bat

Errefuxiatua izatea gizartetik kanpo bizitzea da, garrantzi sozialik eta politikorik ez izatea. Ihes egindako emakumeek eta gizonek zeregin bat zuten bizitzan. Errefuxiatuen esparruan, “ohiak” dira guztiak: nekazari, etxekoandre, sendagile, senar edo ministro ohiak. Errefuxiatua zain dago, beste norbaitek bere etorkizunari buruz hartuko duen ebakiaren mende.

Errefuxiatuen duintasuna proban jarri da: etxeak okupatu zizkieten, seme-alabak hil, torturatu edo bortxatu egin zituzten, eta gau eta egun ibili ziren, bizitzeko leku segurua aurkitu arte. Plastikozko edo buztinezko behin-behineko etxeetan bizi dira, baina askok urteak daramatzate erbestean. Sudango gatazkak lau milioi pertsona baino gehiago lekualdatu ditu gerraren azken fasea hasi zenetik; hau da, laurogeiko hamarkadaren hasieratik. Sri Lankan, Tamil herria gerran dago 1983. urtetik. Palestinako biztanleak ihes eginda daude berrogeiko hamarkadatik.

Gatazka guztietan, komunikabideetan agertu edo ez, errefuxiatuen aurpegietan irakur daiteke benetako historia.

Afrikako, Ekialde Hurbileko, Asiako eta Europako belaunaldi osoek ez dute errefuxiatuen esparruko bizitza baino ezagutu. Haur askok arazoak dituzte hezkuntza jaso ahal izateko, eta itxaropena galtzen dute etorkizunera. Helduek nahastu egiten dute gizartean duten zeregina; gaitasun asko eta irudimena galtzen dituzte. Komunitateak laguntzaren mendeko bihurtzen dira; kulturak, berriz, barreiatu egiten dira, esparru sortzailerik ezean. Belaunaldi horiek lege, gizarte eta politika-ertzean bizi dira, eta nazioarteko komunitateak, askotan, bazterrean uzten ditu. Belaunaldi horiek bazterrean uzten ez direnean, ordea, komunikabideek errefuxiatuen bizitzak desitxuratzeko arriskua izaten da.

Errefuxiatuek janari-anoa bat jasotzen dute astean edo hilean behin, lantzeko lurrik edo zaintzeko ganadurik ez dutelako. Erakunde humanitarioek, eskuarki, errefuxiatuen oinarrizko beharrak asetzen dituzte; hori dela eta, errotik aldatzen da haien bizitza, eta hautsi egiten da familia-egitura.

Angolako Gabriela Cohen emakumeak honako hau azaldu du: *“familiako indarkeria areagotu egiten da, eginkizunak aldatzen direlako: gizon errefuxiatua ez da, jada, etxera janaria ekartzeaz arduratzen. Patriarka-egitura hautsi egiten da, eta gizon-emakumeen nahiz belaunaldien arteko harre-*

manak ezegonkortu egiten dira. Komunitatean ordenari eusteko ohiko mekanismoak ere hautsi egiten dira. Seme-alabek erraz galtzen dute gurasoekiko errespetua, ez baitira haiek elikatzeaz ardurutzen”.

Errefuxiatuen arazo handiena, agian, egitekorik izan gabe etxera itzultzeko zain egotea da. Ez dago jarduerarik, ez dago lanik. Garrantzitsua da gauzatzeko proiektu bat edo helburu bat izatea errefuxiatuak. Errefuxiatuen esparruetan arriskua dago errefuxiatuek borroka armatuaren alde egiteko, horixe iruditzen baitzaie lor dezaketen helburu bakarra.

Nola lagundu diezaiekegu errefuxiatuei beren kabuz eratzen eta bizitzen? Erronka errefuxiatuekin elkarrekiko harremana lortzea da, hau da, mende-kotasunetik urrun egongo den harremana.

Satazka gehien erroan, kontrola lortzeko borroka dago, bai gobernuaren kontrola lortzekoa, bai lurraldearena lortzekoa.

Errefuxiatuen kanpamenduak askotarikoak dira: 50 lagunentzako leku txikietatik hasi -100 kokaleku txiki baino gehiago daude Sri Lankako errefuxiatuentzat Indian- eta 150.000 lagunentzako edo gehiagorentzako kanpamenduak arte burundiar errefuxiatuentzat Tanzanian, esaterako.



Kasu askotan, esparru horietarako sarrera oztopatuta dago eta, horrenbestez, errefuxiatuek ezin dute handik irten, adibidez, janaria prestatzeko egurra biltzera. Debeekatuta dute, halaber, bertako merkatuetan salerosketan aritzea. Debeekatuta dute kanpamendutik kanpo lan egitea ere. Baldintza eta murrizketa horiek miseriaren sentimendu are handiagoa sortu eta barnerarazi ditzakete errefuxiatuen artean. Ruandan, Kizibako eta Gihembeko kanpamenduetan dauden Kongoko errefuxiatuek debeekatuta dute, adibidez, inguruko lurra lantzea; gainera, Afrikako beste kanpamendu askotan gertatzen den moduan %60ra murriztu dira janari-anoak. Baldintza horiek guztiek etsipena sortzen diete errefuxiatuei, eta batzuk harrera-herria utzi eta bere herrialdeetara itzultzeko dira, nahiz eta ez diren desagertu herritik ihes egitera behartu zituzten arrazoiak.



Harrerarantz

Oztopoak dituen, gogortuta dagoen eta gizakiaren aberastasuna ikusteko gai ez den bihotzetik eta gizateriaren koloreetatik sortzen da atzerritarrekiko etsaitasuna. Taldearen etsaitasunetik sortzen da pertsonen barruan dagoen etsaitasuna.

Haien etxeak ikustera joaten garenean errefuxiatuek egiten diguten harre-ratik ere ikasten dugu. Bihotzak etsaitasunetik harrerarako bidea egin dezake harrera-esperientzia hori izatean, eta ihes egindako gizabanakoaren eta familiaren errealitatea ezagutzeko aukera izaten duenean. Etsaitasuna ezjakintasunak sortzen du; harrera, berriz, irekitasunak.

Mendebaldeko munduaren talde-etsaitasuna beste kultura batzuen harre-
rari erreparatuta senda liteke. Agian, ahaztu egin dugu zibilizazioaren
adierazle dela harrera.

Errefuxiatuei laguntzeak aukera berezia ematen digu beste batzuen
sinesmenak ezagutzeko eta haiei laguntza praktikoa emateko. Egungo
errefuxiatuen erdiak baino gehiago musulmanak dira. Kanbodian, adibi-
dez, errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak monje budistekin lan egin
zuen monasterioak eraikitzen eta Kanbodiako gizartearen berriro ere beren
lekua bereganatzen laguntzen.



Gizabanakoa erdigunean

Ez dago etorkinen edo errefuxiatuen masa inbertsonalik. Estatistika-datu
hotzen atzean, pertsona zehatz bat dago, eta erbestealdiari buruzko histo-
ria bakarra du.

Erraza da adorerik eza sentitzea 200.000 pertsona hartzen dituen errefu-
xiatuen esparru handi bat ikustean; esaterako, Tanzaniako mendebalde-
koa. Erraza da, halaber, itxaropena eta elkartasuna sortzea errefuxiatu
bakar batekin hitz egitean, errefuxiatuak bere sentimenduak eta bere bizi-
tza kontatzen dituenean.

“Etorkinen inbasioari” buruzko alertak irakurtzen ditugu egunkarietan.
Gobernuak hormak egiteaz kezkatzen dira, eta lanpetuta dabilta European
gotorlekua sortzen; hau da, kanpoko mundutik babestuko gaituzten eta
gure gizarte ordenatua asaldatuko ez duten hormak sortzen.

Babes-eskaeren eta etorkinen aurka Mendebaldeko Europako hormak
gora eta gora doazen heinean, ekialdera lekualdatzen da arazoa. Poloniak,
Hungariak, Txekiar Errepublikak, Errumaniak edo Lituaniak sudandarrak,
afganiarrak eta Sri Lankako tamilak hartzen dituzte; asko lan bila doaz,
beste batzuk segurtasun bila, eta gehienek mendebaldera hurbildu nahi
dute. Leku guztietan, baina, European bereziki, gero eta zailagoa da etorki-
nak eta errefuxiatuak bereiztea, baita biztanleriaren “borondatezko” edo

“behartutako” mugimenduak bereiztea ere; hau da, jazarpenetik eta heriotzatik ihes egiten dutenak eta miseriatik eta gizarte-bidegabekerieta-
tik ihes egiten dutenak bereiztea.

Gobernuak eszeptikoak dira. Errefuxiatuak, berriz, baztertuak; haien histo-
riak sinplifikatu egiten dira, edo ez dira entzuten.

Gizartearen erantzukizuna da, baita erronka ere, munduko beste lurralde
batzuetan zer gertatzen den entzutea. Ezer gutxi iristen da gure telebista-
tara Indonesian edo Angolan gertatzen ari denari buruz. Hala ere, konti-
nente eta herrialde oro gatazka armatu batek markatu du eta, beraz, jende
askoren mugimenduak. Pertsona bat bere herrialdetik ihes egitera bultza-
tzen duten arrazoiak ulertuko bagenitu, agian, desagertzen hasiko litzate-
ke “masaren” edo “inbasioaren” mamua.

*50 milioi har daitezke behartuta lekualdatutako pertsonatzat,
terminoaren ikuskera tradizionalari eta legalari jarraiki; hau da,
lekualdatutzat edo errefuxiatutzat.*





Errefuxiatuen eta lekualdatuen eskubideak defendatzen

“Guretzat, errefuxiatuontzat, bizitza ez da erraza. Gure eskubideak ez dira errespetatzen gure lurraldean eta, askotan, urratu egiten dira hartzen gaituen lurraldean. Ez dugu ahotsik, eta, hitz egiten saiatzen garenean, ez da gure ahotsa entzuten. Baina bizirik gaude; hori da gure itxaropen handiena. Egunen batean, gure etxeetara itzuliko gara; guztiontzako bakea izango da han, eta berriro eraikiko dugu gure bizitza.”

Jean, burundiar errefuxiatua Tanzanian

Gatazka bat dagoen lekuan, giza eskubideak urratzen dira eta horrek biztanleria mugitzera behartzen du. Errefuxiatuen eskubideak maiz urratzen dira jatorrizko herrietan, ihesean doazenean edo babes-herrialdean. Haien mugimenduei irtenbidea aurkitzeko garaian, errespetatu egin behar dira, ezinbestean, haien oinarrizko eskubideak.

Nabarmena badirudi ere, giza eskubideen eta behartutako lekualdatzeen arteko harremana azken urteotan hasi da nazioarteko arreta jasotzen. Bada halako kontzientzia orokor bat, giza eskubideen errespetua gatazkek prebenitzeko ahaleginen erdigunea dela pentsatzen duena.

Errefuxiatuekin lan egitea ez da elkartasun soila; justizia kontua ere bada, eta guztioi eskatzen zaigu ekiteko, justizia hori errealitate izan dadin. Bidegabekeria orokor ikaragarriaren eta giza eskubideak urratzearen adibide ikusgarriak dira errefuxiatuak. Hori dela eta, borroka egin behar dugu oreka berreskuratzeko; borroka horretan, gainera, pobreak eta zapalduak baztertzeko dituzten jokabideak eta egiturak jarri behar ditugu zalantzan¹.

Egun, jende askok hitz egiten du adiskidetzeari buruz. Errefuxiatuak eta gatazketako errugabeak dira adiskidetze-zereginari ekin diezaioketenak.

¹ KOLVENBACH, P.H., *Dios en exilio. Hacia una espiritualidad compartida con los refugiados*. Jesuit Refugee Service, Erroma 2005.

Askotan ikusi ditugu gatazkan dauden talde etnikoetako alargunak bildu eta hitz egiten, edo pertsonen kontrako minen biktima diren taldeak elkarrekin hausnartzen. Sufritzen dutenak dira mundu hau aldatzeko interes handiena dutenak.

Gatazka armatuetako biktimekin lan egiten duten erakundeak eta elizak dira biktima horiek oinarrizko eskubideetan izaten dituzten urraketen leku-koak eta bozeramaileak. Eskubideak defendatzeko modu eraginkor bat jende horri entzutea da, beren egoeraz hitz egiten laguntzea eta ahots hori haien etorkizunari buruzko erabakiak hartu behar dituzten haiek entzuteko bidea izatea.

“Haien egoera ikustean, errefuxiatuei eskubide guztiak kendu zaizkiela ikusten dugu, baita mota guztietako irainak jasan behar izaten dituztela ere. Horregatik defendatzen ditugu haien eskubideak eskura ditugun bitarteko guztiekin. Errefuxiatuekin eta lekualdatuekin lan egitea pribilegio handia da, horrek besteekiko ditugun balioak eta jokabideak aldatzen baitizkigu barrutik, haienganako dugun maitasuna dela eta”.

Miriam Wairimu, EJZ-ko boluntarioa Nairobin

Nazio bat gatazka batean jausten denean, eta horrek neurri handiko lekualdaketa eragiten duenean, gazteen heziketa eten egiten da; batzuetan, oinarrizko eskubide bat kentzen zaio belaunaldi bati.

Estaturik gabeko pertsonek bi zauri izaten dituzte: batetik, ukatu egiten zaie etxera itzultzea; bestetik, ukatu egiten zaie herritartasuna. Nepalera ihes egindako bhutandar asko talde horretakoak dira egun, edo talde horretako bihurtzeko arriskua dute. Dominikar Errepublikan, haitiar jatorriko gazte askori jaiotza-agiria eta dokumentazioa ukatzen zaizkie eta, horiek ezean, ezin dute oinarritzko zerbitzu publikorik erabili; esaterako, hezkuntza eta osasuna. Horretaz gainera, ezagutu duten herrialde bakarretik erbesteratzeko beldurra etengabea da. Eta hori gertatzen da, Dominikar Errepublikako konstituzioan garbi aipatzen den arren Dominikar Errepublikan jaiotako hurrek dominikar herritartasuna izateko eskubidea dutela.

"Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea".

Herrigabeen arazoan edozein azterketak kontuan izan behar du herritartasuna ukatzea, kasu askotan, arraza-diskriminazioa dela (bai haitiar jatorriko dominikarren kasuan, bai Nepalera ihes egindako bhutandarren kasuan).



Errefuxiatuengandik eta lekualdatuengandik ikasteko aukera bat

"Guk dena galdu genuen. Hiru etxe genituen, hamar hektareako lurra, autoa... Gure etxea tamilak garelako erre zuten. Sri Lankako iparralderantz ihes egin genuen, Jaffnarantz. Nik nire bitxiak saldu nituen. Erotu egingo ginen federik eta eukaristiarik gabe. Orain ez dugu gauza askorik, baina bizirik gaude behintzat".

Sri Lankako lekualdatua

Emakume horrek hauskortasun eta min hori izan arren, itxaropen eta sendotasun irakaspena ematen digu, eta hori Jainkoaren esperientzia bizi batetik sortzen da. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren esperientzia, berriz, errefuxiatuek bizitzari eta espirituari buruz asko erakusten digutela da, haien ahotsa entzun eta haien muturreko elkertasunetik, harreratik eta eskuzabaltasunetik ikasten badugu. Bizipen horrek gizakiaren punturik sakonena ukitzen du, ia dena galdu arren bizitzeko eta duintasuna berrezartzeko ausardiari eusten dioten pertsonak baitira. *“Gure lanean, gizakia-
ren gauzarik onenak eta txarrenak ikusten ditugu, baina bizitza heriotza baino indartsuagoa da”* azaldu du Mateo Aguirre apaiz jesuitak (Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuko eskualdeko zuzendaria mendebaldeko Afrikan).

Hala, iradokitzailea da Galangen, Indonesian, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuko boluntarioa den Gildo Dominiciren esperientzia: *“Gizateria berraurkitzen ari naiz hemen, Galangen. Badira norberekeria eta handinahia, baina gizatasunaren alderdi positiboak askoz nabarmenagoak dira. Hemen, giza elkertasuna errealitatea da, eta ez hitz ederrak soilik”*.

Pertsona horien sufrimenduaren aurrean izaten dugun tentazio handia proiektuei ekitea da, gauza materialak ematea, errefuxiatuek zer behar duten erabakitzea. Askotan, oinetakorik gabe, edo alkondara bakar batekin, gosez eta asmo garbirik gabe iristen dira erbestera. Baina ez dute ihes egin zapata parte bat edo alkondara bat lortzeko. Haien giza esperientzia errespeturako deia da. Biolentziak traumatizatuta iristen dira, bakarrik, baztertuta eta akituta, eta gizarte egonkor batean lekua galdu izanarekin traumatizatuta. Batzuetan, erru-sentimendua izaten dute iristean, bizirik irauteko egin behar izan dutenagatik. Norbaitek uler ditzan nahi dute, entzun ditzan. Bill Yeomans apaiz jesuitak honako hau zihoen errefuxiatuekin izandako esperientziari buruz: *“Errefuxiatuekin lan egitea joaten naizenean, ez naiz gauzak eramatera joaten, lehenik zer eraman behar duen ikasi behar duen pertsona gisa baizik. Larrialdi-egoera baten aurrean, garbi dago lehen mailako beharrak direla janaria, etxebizitza eta mediku-laguntza, eta ahalik eta azkarrena eman behar zaizkietela. Nabarmena eta arrunta da hori. Baina ez. Goseak eta etxerik eta lagunik gabe dagoenak erraz galtzen du giza duintasunaren zentzua. Ez da nahikoa behar dutena ematea. Haien estimu pertsonala berrezartzeko moduan eman behar diet. Haien gizateriarenganako itxaropena eta konfiantza berreraikitzeke moduan eman behar diet. Errefuxiatuekin lan egi-*

ten dudanean, gero eta gehiago ohartzen naiz nire buruari ematen ez badiot, hobe dela ezer ez ematea¹⁹.

Errefuxiatuak entzuna izateko eskubidea du. Errefuxiatuak eskatzen du galdera hori argi eta garbi entzun dezala norbaitek, eta zergatik galdetzeko beldurrik ez izaten ere erakusten digu. Agian ez dakigu erantzuna, baina galdera egiten ikasi behar dugu.



Harrera-espirtua

Errefuxiatua izatea iraina da gizakiaren duintasunarentzat. Horregatik erantzuten dugu duintasun hori nabarmenduz.

Harrera-lanak eskatzen du jendeak bihotza eta etxea irekitzea, bai emateko, bai jasotzeko. Egiatzko zerbitzuaren oinarri bat leialtasuna da. Topaketatik eta laguntzatik sortzen den zerbitzuak honako baldintza hauek izango dituen espirtua eskatzen du:

Barneratze-espirtua

Errefuxiatuek beste mundu bat bizitzeko aukera ematen digute, hau da, banako bakoitzak hartzeko eta hartua izateko leku bat duen mundua: erlijiosoak, errefuxiatuak, laikoak, beste sinesmen batzuetako anai-arrebak, fede bila edo bizitzaren zentzuaren bila dabiltzanak.

Iritzi-desberdintasunen azalaren azpian, errefuxiatuei laguntzeko eta haiek zerbitzatzeko zeregin erabakigarriari buruzko espirtu-elkartasun sakona dago. Espiritu hori are nabarmenagoa da krisi-garaian. Badira beren bizitza besteen zerbitzura ematen amaitzen dutenak ere. Talde askotan, desberdintasunen gaindiko elkartasuna eguneroko eukaristian ospatzen da.

¹⁹ YEOMANS, W, *The refugee experience*. Jesuit Refugee Service, 1989.

Errefuxiatuen esparruetan edo gerra egoeretan (Ekialdeko Timorren, esaterako), eukaristia herri zapalduaren askatasunerako borrokaren egunero-ko ogiaren sinbolo publikoa izan zen. Beste egoera batzuetan, beren kokalekuetara eta etxeetara jaurtigaiak erortzen ziren bitartean ospatu dute eukaristia errefuxiatuek.

Errefuxiatu batek bere herrialdea utzi eta beste nazio batean asiloa eta babesa eskatzea lortzen duenean, haren norakoa errefuxiatuen kanpamendu bat izaten da, eta ez hartzen duen herrialdeko gizartean barneratzea; erbestealdiko urte horietan egoera eskasean bizitzera kondenatzen du horrek.

Ezinbestekoa da eztabaida sustatzea, jakiteko nori dagokion errefuxiatuek giza eskubideetan (arau eta erregela unibertsalak barne) inolako bazterketarik ez izatea bermatzeko ardura, eta ez lege humanitarioetan eta errefuxiatuei buruzko legeetan proposatutako haienak bermatzea soilik.

Adiskidetze-espirtua

Askotan, errefuxiatuekin lan egiten dutenei adiskidetze-behar erabakigarria dagoen lekuetan lan egiteko eskatzen zaie; hau da, errefuxiatuen eta lekualdatuen taldeen eta lekualdatu zituztenen artean, edo itzulitakoen eta hartzen dituen biztanleriaren artean. Benetako espiritualtasunak “sentitzen dut” esateko gaitasuna izan behar du, baita barkatzeko eta sendatu egiten duen barruko bakea bilatzeko gaitasuna ere.

Hezkuntzak ere badu bere zeregina bakea, justizia eta adiskidetzea sustatzeko: eskolaratzeak gizarteratze-prozesua dakar berekin, eta komunitatean elkarrekin bizitzeko beharrezko ezagutzak ematen dizkie errefuxiatuei.

Barneratze-indar horrek gizarte-oreka ematen du, baina ikasten, egiten eta pertsonalki garatzen ere irakasten die. Hezkuntzarik gabe, jaitsi egiten da gazteen autoestimua eta, horrekin batera, bizitza honetan aukerarik ez dutela izan sentitzen dute. Horrenbestez, errefuxiatuentzako eta lekualdatuentzako larrialdiko laguntzaren funtsezko eta osoko zatitzat hartu behar da hezkuntza.

Bilaketa-jarrera

Batzuentzat, maitatu eta errezatu egiten duen bihotzaren intuiziozko erantzuna da bereizketa. Beste batzuek arauetan pentsatzen dute, kontsolamenduen eta atsekabeen eskariarekin nahasten den logika-prozesuan. Bereizten duen bihotza beharrezkoa da egunero eta, batzuetan, besteekin partekatutako prozesua behar du.

Munduaren zein zatitan esku hartu, errefuxiatuen zer beharri erantzun, nola lagundu: denak erabakiak dira. Hollenbeck-ek lehentasunen erlazioa egiten zuen eskaerak gatazkan zeudenean, eta lehentasun horiek erabakitzen lagun diezagukete: *Pobreen beharrek lehentasuna dute aberatsen beharren aurrean; menderatuen askatasunak lehentasuna du boteretsuen askatasunaren aurrean; baztertuen parte-hartzeak lehentasuna du baztertzen dituen ordenaren zainketaren aurrean.*

Behartuta lekualdatutakoen giza eskubideak ukatzeak ondorio fisiko, mental eta psikosozial larriak eta luzeak ditu, bereziki emakumeengan, haurren eta adinekoengan, eta ahalik eta azkarrena heldu behar zaie haien babes-eskaerei. 2000. urtean, haurren %44k lehen hezkuntzarako sarrera izan zuten. Hala ere, ACNURen eskuetan zeuden 12 eta 17 urte arteko haurretatik %3k baino ez zuten jaso lanbide-hezkuntza edo bigarren hezkuntza.

Lekualdatu askori ez die laguntzarik edo babesik ematen ACNURek, edo NBERen beste agentziaren batek. Horretaz gainera, ACNURen babes-aginduak legezko babesa azpimarratu du, askotan ekonomia, gizarte eta kultura-eskubideen babesaren kaltetan. Oso ohikoa da errefuxiatuak atxilotzea, eta horrek zalantzan jartzen du babesa eskatzen dutenen eskubideak babesten ote diren.

Errefuxiatuekin lan egiten dugun erakunde humanitarioek gero eta zailtasun gehiago ditugu gure proiektu askoren finantzaketa bermatzeko. Hori, hein handi batean, lekualdatutako pertsonen kopuruak eta haien beharrek gora egin dutelako gertatu da; hala ere, bada beste arrazoi bat: zenbait nazio aberatsek ez dute borondaterik garapenerako laguntzarekiko eta ekintza humanitarioko programekiko konpromisoak hartzeko.

Justizia bilatzea

Errefuxiatuen alde lan egin eta haien eskubideak defendatzeko, egoerak ezagutu eta aztertu behar dira, baita adorea eta justiziariekiko grina izan ere. Beharrezkoa da, halaber, zeregin bakoitzak bere dohainak eskatzen dituela jakiteko apaltasuna izatea. Ezinbestekoa da porrotari aurre egiteko gaitasuna eta iraunkortasuna izatea. Suhartasuna eskatzen du; ez, ordea, fanatismoa.

Ziur asko, beste ezeren gainetik besteak animatzeko eskuzabaltasuna behar dugu, izan errefuxiatuak, izan langile humanitarioak, arrazoiak, egitura ustelak eta norberekeria ulertzeko eta arazo horientzako irtenbideak identifikatzeko borrokatzen dugun heinean.

Ikusi dugunez, gatazkak dira behartutako lekualdaketen arrazoi nagusia. Garbi dago, halaber, gatazkak nahiz gerrak azpigaratutako lurraldeetan izaten direla nagusiki. Jendeak muturreko pobrezia eta azpigarapenari ihes egiteko uzten du bere lurra, bertako bizi-baldintzak jasanezinak eta onartezinak direlako. Horrenbestez, injustizia kontua da; izan ere, une historiko honetan, zabaltzen ari da mundu garatuaren eta azpigaratuaren edo aberatsen eta pobreen arteko aldea.

Itxarotea, itxaropen oren aurka (Rom 4:18)

Erbestean dagoen herriarentzat ez dago ezer ederragorik bakearen itxaropena baino, idatzi zuen Miriamek, afrikar errefuxiatu batek. Norbaiti itxaropena lapurtzea izugarria da; giza espiritua hil egiten da. Gure esku dagoen guztia egitea guztiontzako itxaropenari bizirik eusteko, esker onekoa izatea eguneroko opari txikiengatik, poztasun pixka bat ematea erbestealdiko bizitzari: horiek dira Jainkoak agindu dizkigun zereginak.ⁱⁱⁱ

Etxera itzultzea, prestatze-fasean nahiz itzulera- eta birgizarteratze-prozesuan. Etxera itzultzean, errefuxiatua izateari uzten diote, baina, oraindik ere, babes behar dute, beren etxeetatik kanpo jarraitzen baitute. Gatazken ondorengo itzulerak eta gerratik bakerako trantsizio-prozesuko birgaitzeak eta berreraikitzeak denbora, trebetasuna, borondate politikoa, finantza-laguntza sendoa eta asmamen handia behar dute. Egun, aberriratzeko eta berriro kokatzeko prozesu garrantzitsuenan Angolan ari da gauzatzen, bake-prozesu batek adoretuta; 2002ko apirilean eman zen su-etena, gerran hogeita hamar urte igaro ondoren. Afrika austral osoan banatutako ehunka mila angolar errefuxiatu beren lurretara itzultzeko prestatzen ari dira, erbestealdi luze baten ondoren.

ⁱⁱⁱ COGHLAN, D., Dios en el exilio. Hacia una espiritualidad compartida con los refugiados. EJZ, Erroma 2005.


2. kapitulua

Liberia barneko errefuxiatuen gizarteratzea

Renaud de Villaine.

EJZ Liberiako advocacy arduradun nazionala.







Liberiako testuingurua

Liberia da Afrikako lehen errepublika. Ipar Amerikan esklabo izan, askatu eta sorterrira itzultitako jendeak sortu zuen, 1847an. Zenbait elkarte filantropikok (*Amerikako Kolonizazio Elkarteak*, besteak beste) lagundu zien esklabo ohiei sorterrira itzultzen. Independenten iraun zuen Liberiak, Afrika ia osoa Europako potentziek kolonizatu bazuten ere. Askatutako esklaboen oinordekoek, ordea, bazterrera utzi zuten sorterriko bertako jendea, boterera iristeko aukerarik gabe eta hazkunde ekonomikoaren etekinetatik aparte. Jatorrizko liberiarrek (liberiar amerikarrek ez bezala), 1946an eskuratu zuten botoa emateko eskubidea. Tubman (1944-1971) eta Tolbert (1971-1980) lehendakariak esan zuten ahaleginak egingo zituztela jatorrizko liberiarren eskubideen alde, baina bazterturik jarraitu zuten.

1980an, estatu-kolpea antolatu zuen Samuel K. Doe (Liberiako armadako sarjentua) “jatorrizko” liberiarrekin. Tolbert lehendakaria eta haren laguntzaileetako batzuk basatiki hil eta boterea bereganatu zuen Doe. Indarkeria-aro baten hasiera izan zen Liberiako estatu-kolpea. Ustelkeria, kudeaketa txarra eta errepresioa izan zituen ezaugarri nagusi Samuel Doeren hamar urteko agintaldi hark. Charles Taylorren matxinadak (1989) bota zuen Doe boteretik.

Bere aurrekoa bezala, Taylorren teniente izandako batek torturatu eta hil zuen Samuel Doe, 1990ean. Dozena-erdi bat talde borrokatu ziren Liberiako gerra zibilean, hango agintea eta baliabideak kontrolatu nahian guztiak ere. Giza eskubideen bortxatze masiboa eta haur soldaduen erabilera sistematikoa izan zituen ezaugarrietako batzuk gerra hark. 1996an berreskuratu zuen bakea Liberiak, Afrika Mendebaldeko Estatuetakoa Ekonomia Erkidegoak (ECOWAS) bidalitako bake-indarren esku-hartzearekin.

Charles Taylorrek irabazi zituen 1997ko hauteskundeak, indarkeria eta beldurra lagun zituela. Handik aurrera, izua eta ustelkeria izan ziren nagusi Liberian. Ginea eta Boli Kostaren haserrea eragin zituen Charles Taylorrek, eskualdea ezegonkortzeko haren saiakerak zirela medio. Hala, Taylor agintetik kentzeko matxinada bultzatu zuten bi herrialde horiek, LURD (Berradiskidetzearen eta Demokraziaren aldeko Liberiar Batuak) eta MODEL (Liberiako Demokraziaren aldeko Mugimendua) erakundeen bitartez. Erbestera, Nigeriako hegoaldera, alde egin behar izan zuen Charles Taylorrek, boterea utzita. Sierra Leonako auzitegi bereziak, berriz, gerra-krimenak egitea egotzi zion Taylorri.

2003ko abuztuan sinatu zen, Accran, bake-hitzarmena, eta han amaitu zen gerra, 250.000 bat liberiarren heriotza ekarri zuena. Ondoren, UNMIL erakundeko (Nazio Batuen Misioa Liberian) 15.000 soldadu hedatu ziren herrialde hartan. NBEk une hartan mundu osoan zuen indar nagusiaren eginkizuna zen bakea babestea, eta talde gerrillarien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze-prozesua (DDR) gidatzea. Bestalde, trantsizio-gobernua (NTGL, Liberiako Trantsizio Gobernu Nazionala) eratu zen bake-hitzarmena sinatu ondoren. Charles G. Bryant negozio-gizona zuen buru gobernuak. Ustelkeria leporatu bazitzaion ere, bete zuen NTGLk bere eginkizun nagusia: bi urteren buruan hauteskundeak egitea.

2005eko azaroaren 23an, Ellen Johnson-Sirleaf hautatu zuten Liberiako lehendakari, hauteskunde-prozesu baketsu eta garbia egin eta gero. Jantzia eta trebea da, 67 urte ditu, eta Afrikako lehenbiziko lehendakari emakumezkoa da. Itxaropen handia sortu zuen haren hautaketak, Liberia egonkortzen lagunduko zuelakoan. Dena den, badu zer egina

Johnson-Sirleaf lehendakariak bake iraunkorra sendotzeko eta bere herria garapen bidean jartzeko.

Oro har, nahiko egonkorra eta lasaia da Liberiako egungo egoera, gatazkaguneren batzuk badauden arren. DDR prozesua 2004ko urrian amaitu zen, baina espero ziren emaitzarik gabe. 100.000 bat soldadu eta gerrillari desarmatu arren, oraindik ere arma asko dago Liberialan (bat hiru gizoneko). Gizarteratze-programarik ez zegoenez, ehunka gerrillari ohi (mutikoak ere tartean) errekrutatu zituzten berriro talde armatuek eta bolizaleek 2005ean. 2003ko su-etenaren ondoren NBEk agindutako ordaina ez zutela jaso eta, kautxu-sailak okupatu zituzten zenbait borrokalari ohik. Etengabeko tentsio-giroa sortu zuen horrek tokiko komunitateekin. Abuztuan, Guthrie saila (Bomi konderria) berreskuratu zuen gobernuak, NBEko bake-indarren laguntzarekin, 500 bat matxinauren agintepetik.

Delinkuentzia, bestalde, hazten ari da Monrovia. Langabezia-tasa %85ekoa da Liberialan, eta herritarren %80 eguneko AEBtako dolar batekin baino gutxiagorekin bizi da, inongo etorkizun-itxaropenik gabe. Hori dela eta, askok jotzen dute delinkuentziara eta gaizkile-taldeetako kide egiten dira. Liberiako hiriburuko auzune batzuetan, izua da nagusi, gaizkileak direla eta.

Herritarren segurtasuna bermatzeko, berrantolatu egin dute Liberiako polizia nazionala. UNMILEko ofizialak ari dira polizia berria prestatzen. Ekainean, altxatu egin zen arma-blokeoa, poliziak pistolaz hornitzeko. Halaber, 2005eko amaiera aldera hasi ziren armada berrirako 2.000 soldaduak errekrutatzen. AEBek ordaintzen dute soldaduen entrenamendua. Segurtasun-enpresa pribatu bat (DynCorp) kontratatu dute entrenamenduaz arduratzeko.

Bestalde, administrazio osoa ere berrantolatu beharra dago, eta haren sinesgarritasuna itzuli, urte askotako ustelkeria eta kudeaketa txarrak nabarmen hondatu baitzuen. Ustelkeriaren aurka gogor borrokatuko dela esan du behin eta berriz Ellen Jonson-Sirleafek. Trantsizio-gobernuaren garaiko ustelkeria amaiazteko, beren karguak berehala uzteko agindu zien lehendakariak NTGLk izendatutako politikari guztiei,

baita NTGLren bi urteko agintaldiaren ikuskapena egiteko manatu ere. Gobernuaren kontratuak eta emakidak gardentasunez egitearren, baliogabetzat jo zituen lehendakariak zur-enpresei eta aurreko administrazioei egindako baso-emakida guztiak. Neurri horiekin batera, Gobernagarritasuna eta Ekonomiaren Kudeaketa Sustatzeko Programa (GEMAP) abiaraziko zuela hitzeman zuen gobernu berriak. Nazioarteak agindu zion Liberiari programa hori martxan jartzeko, 2005eko irailean, endemikoa bihurtua den ustelkeriari aurre egiteko. Plana aplikatzeko, atzerriko finantza-adituak jarri dituzte Liberiako Banku Nazionalean, Ekonomia Ministerioan eta beste finantza-agentzia batzuetan. Elkarrekin sinatzeko ahalak dituzte adituek.

Sistema judizialak ere urte luzez jasan izan ditu ustelkeriaren eraginak. Arriskuan dago sistema, ez baitago jende trebaturik. Herrialde osoan funtzionatzen du gaizki sistema judizialak. Epaiketa aurreko atxilotze-egoeran daude Liberiako espetxeetako presorik gehienak, eta denbora luzez itxaron behar izaten dute kasuak epaitu arte. Nazioarteko arauak ez dituzte betetzen Liberiako espetxe eta atxilotze-zentroek: jende gehiegi ziegetan, janari eta edari gutxi atxilotuek...

Oro har, zigorgabetasun-giroa da nagusi herrialde osoan. Gerra-krimen larriak eta gizateriaren aurkako krimenak egin zituztenek ez dituzte beren gain hartu egindako gehiegikeriak. Garai bateko “gerra-jauntxoek” Liberiako erakunde publikoetako goi-karguetan segitzen dute. Bi adibide aipatzearren, senatari dira gaur egun Prince Johnson (1990ean Doe lehendakaria basatiki hil zuena) eta Adolphus Dolo (“Peanut Butter jenerala” deitzen zioten lehen). Alabaina, izan dira azkenaldi honetan urrats positibo batzuk ere. 2006an, Bakearen eta Berradiskidetzearen Batzordea eratu da. Gerra-garaiko gehiegikerien biktimen istorioak erregistratzea da batzordearen eginkizuna, baita gehiegikerien egileenak ere, eta Liberiako iragan hurbileko gertakariengatik zer kalte-ordain eman aztertzea. Zigorgabetasunari aurre egiteko lehen urratsa izango da hori, justizia-eskumenik ez daukan arren Batzordeak.

2006ko martxoan, ofizialki eskatu zion Ellen Johnson-Sirleafek Nigeriari Charles Taylor Sierra Leonara estraditatzeko, hango Auzitegi Berezian 11 akusazio jasotzeko; besteak beste, gerra-krimenak egitea

eta giza eskubideak bortxatzea. Luxuzko erbestealdian bizi zen Taylor Nigerian. Martxoaren amaieran eraman zuten Liberiako agintari ohia Sierra Leonara. Ekainaren 20an eraman zuten Charles Taylor Herbeheretara, han epai zezaten. Aldez aurretik, Hagako Nazioarteko Zigor Epaitegiak erabaki zuen hura epaitzea; Britainia Handiak, berriz, bere agindupean espetxeratuko zuela agindu zuen, baldin eta kondentzen bazuten. Dena den, oraindik ere badu jarraitzailerik Taylorrek Liberialan. Bere garai bateko alderdiak (NPP, Alderdi Nazional Aberkoia) ordezkariak ditu Liberiako Kongresuan. Ordezkarien Ganberako bozeramailea (Edwin Snowe), adibidez, NPPren ordezkaria da.

Liberiako ekonomia, bestalde, lur jota utzi du gatazkak. Aberatsa da Liberia: badu ura, mineralak (burdina, urrea, diamanteak, baritina, kyarita, manganesoa, bauxita eta kromita), basoak (munduko bigarren kautxu-sailik handiena dago Liberialan. Firestone enpresa estatubatuarra ustiatzen du, 1926az geroztik) eta nekazaritzarako klima aproposa. Hala eta guztiz ere, munduko herrialderik azpigaratuenetakoa da Liberia. Giza Garapenaren Adierazleen arabera egiten den herrialde-sailkapenean ere ez da ageri.

Errepide gehienak (ezinbestekoak komunikaziorako eta ekonomiaren garapenerako) egoera txarrean daude. Bide batzuk konpontzen ari da UNMIL, laguntza humanitaria garraiatzeko, Baina “lehen sorospena” besterik ez da hori. Gobernu berriak egin beharko du lanik gehiena (konpondutako errepideen mantentze-lana, adibidez). Munduko Bankuak orain gutxi jakinarazi zuen 20 milioi dolar sartuko zituela funts batean, Liberiako azpiegitura hondatuak berreraikitzen laguntzeko. Apenas dagoen elektrizitaterik herrialde osoan. Liberiako Independentzia Egunetik (uztailak 26) argia dago, gauero, Monroviako kale nagusietan. Hala eta guztiz ere, berreraikitze-lan handia dago egiteko oraindik alor horretan. Aurreko gobernuak –trantsiziokoak– aitortu zenez, hiruzpalau urte eta 20 bat milioi dolar beharko dira elektrizitate-sistema berriro erabat martxan jartzeko.

Liberiaren zorra, guztira, 3.700 milioi dolarrekoa dela kalkulatu da. Bestalde, diamante eta zuraren salmenta (Liberiako baliabide nagusiak) blokeatuta dauka nazioartekak. Paul Wolfowitzek –Munduko

Bankuko zuzendaria– adierazi zuenez, lanean ari da bere erakundea Liberiaren zorra likidatzeko, baita gainerako moneta-erakunde eta bankuei laguntzen ere horixe bera egin dezaten. Zigor ekonomikoei dago kienez, diamante eta zuraren gaineko blokeoa kendu aurretik, nazioar-teak nahi du segurtasuna areagotzea eta ustelkeria ezabatzeko gober-nu berriaren ahaleginak emaitzak izatea.



Liberia barneko errefuxiatuen gizarteratzea

Testuinguru horretan, apirilean jo ziren ofizialki itxiztat lekualdatuen-tzako eremuak. Gogotik txalotu zuten erabaki hori Liberiako agintariek eta UNMILeko ofizialek. Horrekin amaitu zen, bada, 2004an hasitako itzulera-prozesua, 320.000 bat liberiarri beren sorterrira itzultzen lagundu ziena. ACNURen bidez inguruko herrialdeetatik itzultitako 80.000 errefuxiatuak gehitu behar zaizkie haiei. NBEko agentzia horrek otsailean jakinarazi zuen urtea amaitu aurretik etxeratu nahi dituela 180.000 errefuxiatuetatik 100.000. Ginea, Sierra Leona, Boli Kosta eta Ghanan bizi dira errefuxiatu horietatik gehienak.

Itzuli ziren gehienek esan zuten oso pozik zeudela berriro etxean egoteagatik. *“Norberaren etxea bezalakorik ez dago”*: sarritan entzuten da esaldi hori barrualdeko herrietan. Noranahi joateko askatasuna estimatzen dute bereziki etxeratuek. Eremuetan zeudela, izan ere, segurtasunik eza jasaten zuten. Emakumeak, batik bat, erasoak

jasan eta bortxatuak izateko arriskupean ibiltzen ziren beti errefuxiatu-eremuetan. Etxera itzultzeko beste bi arrazoi hauek ere aipatzen zituzten lekualdatuek: senitartekoak zituztela sorterrian, eta bizimodu berria hasi nahi zutela familiarekin. Aitzitik, NBEko agentziek errefuxiatuei emandako laguntza (janaria, jaki ez diren objektuak eta bost dolar laguneko) ez zen, inondik ere, inor etxera itzularazteko moduko pizgarria. Lekualdatuetako batzuk laguntza hori jaso gabe ere itzuli dira sorterrira.

Etxeratutako jende asko zen kexu garraio-laguntzarik apenas jaso zutelako, eta, ondorioz, saldu egin behar izan zutelako laguntza-paketearen zatiren bat, edo lan batzuk egin behar izan zituztelako etxera itzultzeko dirua bildu arte. Jenderik ahulena bakarrik eraman zuten etxeraino. Jende asko zen kexu, halaber, itzulera-laguntza ez zela aski bizimodu berri bati ekiteko. Deitoratzen zuten, bereziki, nekazaritzako tresnarik eta ereiteko hazirik eza. Horregatik, laguntza humanitarioko zenbait erakundek (Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak, ICRC, adibidez) banatu zituen nekazaritzako lanabesak eta haziak biziki estimatu zituzten errefuxiatu etxeratuek.

Dena den, elikagaien segurtasunik eza arazo larria da oraindik ere Liberia osoan. Populazioaren %20k bakarrik hartzen du behar duen elikagai-kantitatea¹. Jaki gutxiegi eta mota gutxitakoak kontsumitzen dituzte liberiar gehienek, egunean gutxiegitan. Haurren malnutrizio-tasa handia da: elikadura eskasa dute bost urtez beheko haurren %39k, anemia dute sei eta 23 hilabete arteko haurren %86k, eta A bitaminaren gabezia %53k². Oraintsu hasi dira lurra lantzen etxeratu berriak. Lehenbiziko uztak (iraila-urria aldera) hobetu egingo du, agian, egoera.

Janari-eskasia dela eta, etxeak eraikitzeke edo konpontzeko lanak atzeratu egin dira. Izan ere, jakiak nondik inguratu, hori da herritarren kezka nagusia. Aterpeari dagokionez, laguntza humanitarioko erakundeek zuzentzen dituzte zinka banatzeko programak. Dena den, kexu dira komunitate askotako herritarrak zinkaren banaketa itzulera-proze-

¹ NBEko Apelazio Bateratuen Prozesua (CAP), 2006

² UN CAP 2006.

suaren hasieran egin zelako eta pertsona ezinduei bakarrik eman zitzaielako.

Ura, saneamendua eta osasuna ere premia larriak dituzte etxeratu diren komunitateetan. Populazioaren %31k bakarrik dauka eskura edateko ura³. Ellen Johnson-Sirleafek agindu duenez, Liberiako herri eta hiri nagusi guztiek izango dute, 2009a baino lehen, edateko uraren iturri bat, gutxienik. Bestalde, liberiarren %25ek bakarrik dute eskura saneamendu-sistema egokirik⁴. Osasunari dagokionez, klinikariek ez dago komunitateetan, edo, baldin badago, ez dute sendagairik. Liberia osoko egitura medikoen %35 bakarrik daude martxan gaur egun. Hori dela eta, herritarren %75k baino gehiagok ez dauka zerbitzu espezializaturik (obstetrikaririk, adibidez)⁵. Penagarriak dira osasun-adierazleak. Liberiako batez besteko bizi-itzaropena 41 urtekoa da. Haurren eta amen heriotza-tasak (milatik 157 eta 100.000tik 580, hurrenez hurren) munduko handienetakoak dira⁶. Biztanleen %10 hiltzen du malariak urtean. Edateko urik ezak, bestalde, areagotu egiten du diarrea, kolera eta beste gaitz batzuk harrapatzeko arriskua. UNICEFek duela gutxi plazaratutako txosten batek dioenez, diarrea eta kolera dira “haurren hiltzaile nagusietako bi”. Diarreari dagokionez, bost urtez beheko haurren heriotza guttien ia laurdena eragiten du gaitz horrek. Sexu bidez kutsatzen diren gaitxotasunek jotakoak, berriz, ugaltu egin dira herrialdearen barrualdean errefuxiatuak itzuliz gerotik. Tuberkulosia ere ugaltzen ari da. Hiesari dagokionez, kalkulatzen da Liberiako herritarren %8,2 inguruk daukala GIB birusa⁷.

Hezkuntzaren alorrean, behar adina eskola eta materialik (koadernoak, lapitzak, erregistro-txartelak...) ez dago errefuxiatuen sorterrietan, ume asko itzuli baitira erbestetik. Liberiako hiru eskolatik hiruk izan zuten kalterik gerra-garaian⁸. Boluntarioak dira irakasle asko. Gobernuaren soldatapean daudenek, berriz, ez dute maiztasun jakin

³ UN CAP 2006.

⁴ UN CAP 2006.

⁵ UN CAP 2006.

⁶ UN CAP 2006.

⁷ UN CAP 2006.

⁸ UN CAP 2006.

batekin kobratzen. Lehen hezkuntzako eskola publikoetako irakasleen %20k bakarrik dauka behar adinako trebakuntza irakaskuntzan jarduteko⁹. Bestalde, eskola-tasak eta uniformeen prezioa ere oztopo dira umeak eskolatzeko. Populazioaren %55 dago eskolara joateko adinean, kalkuluaren arabera. Portzentaje horretatik, %45k ez du hezkuntzarik jasotzeko modurik¹⁰. Lekualdatuen eremuetatik itzulitako zenbait hurrek ezin izan zuten ikasturtea amaitu. Bestalde, helduentzako alfabetizazio-programak eskatzen dituzte itzulitako helduek. Izan ere, errefuxiatu-eremuetan izaten zuten alfabetizazio-saiorik, eta biziki estimatzen zituzten errefuxiatuek. Liberiako helduen alfabetizazio-tasa %37koa da, oso txikia Saharaz hegoaldeko Afrikako batezbestekoarekin alderatuta (%61koa).

Ettxeko indarkeriaren hazkundera ere lehen mailako kezka da etxeratu direnen herrietan. Gai delikatua da hori, eta emakumeek ez dute nahi izaten horretaz hitz egin. Etxeratutako gizonezkoek, berriz, estresari eta gerrak eragindako traumari leporatzen diote tratu txarren erantzukizuna. Janari-ekasiala ere aipatu ohi da senarren eta emazteen arteko etengabeko liskar-iturriztat. Emakumezkoak dira herritar gehienak itzulitako errefuxiatuen komunitateetan, gizonezko asko hil baitziren gerran. Ohiz kanpoko lanak eginez (lorenzaintza...) edo negozio txikiekin mantendu ohi dute familia. Zenbait komunitatetan, gizonezkoek ez dute onartzen egoera hori. Batzuek diote emaztea desafioka ari baliatzaie bezala sentitzen direla. Baliteke uste horrek loturarik izatea etxeko indarkeriaren areagotzearekin.

Babesik gabe dauden herritar ugariak da arazo nagusietako beste bat. Agureak eta amonak, minusbaliatuak (itsuak, paralitikoak...) umezurtsak eta ama ezkongabeak dira babesik gabeko gehienak. Dena den, komunitate gehienetan ama ezkongabeak ez dira pertsona babesgabetzat jotzen. Izan ere, familiako kiderik ahulenez arduratzen dira. Apenas dagoen komunitateen ekimenik babesgabeen laguntzeko. Familiak mantendu ohi ditu, edo auzokoen eskuzabaltasunak, familiarik ez badute. Badago, bestalde, erakunde humanitarioen laguntzarik

⁹ UN CAP 2006.

¹⁰ NAZIOARTEKO ERRESKATE BATZORDEA, *Ikaskuntzaren Aprobetxamendurik Onena: Hezkuntzaren biziberritzea gerraosteko Liberialan*. 2006

jaso ez duen jende ahul asko ere. Garbi erakusten du horrek ez dela babesgabeen segimendurik egin errefuxiatu-eremuetatik haien sorterrietaraino.

Arazo horiek guztiak gorabehera, sorterriko komunitateak berreraikitzeke itxaropenaz itzuli zen jende asko erbestetik. Itzultako errefuxiatu guztiak aitortzen dute, aho batez, oso onuragarri izan zaizkiela errefuxiatu-eremuetan jasotako trebakuntza-ikastaroak. Aitortzen dute, orobat, auzolanaren garrantzia irakatsi diela erbesteko joan-etorriak. Errefuxiatu-eremuetan zeudela, elkarrengana bildu eta antolatuzera bultzatzen zituzten erakunde humanitarioek. Emakumeek ikasi zuten, batik bat, auzolanaren garrantzia. Azkenik, beste talde etniko batzuetako jendearekin elkarlanean jarduten ikasi zuten lekualdatuek eremuetan bizi zirenean. Gobernuak, NBEko agentziek eta GKEek aintzat hartuko balituzte faktore horiek guztiak, Liberiako garapen jasangarria bultzatzeko eta bake-prozesua sendotzeko lagungarri izango lirateke, seguruenik.


Ofizialki, apirilean amaitu zen lekualdatuen itzulera, errefuxiatu-eremuak itxi zituztenean. Erbestera alde egin behar izan zutenen gizarteratze-prozesua, ordea, hasi besterik ez da egin.

3. kapitulua

Etorkizun-aukerak

Eduardo J. Bofill Tortosa.
EJZ Liberiako psikologoa.







Testuingurua

Liberia, pixkanaka-pixkanaka, herrialdea suntsitu duen 14 urteko gerra gainditzen saiatzen ari da. Ez dute oinarrizko zerbitzurik (ura edo argia, esaterako), eta, horrenbestez, bertakoen bizitza ez da biziraupen-jarduera hutsa baino. 1.000.000 pertsonak baino gehiagok utzi behar izan zituzten beren etxeak, gatazka armatu horren ondorioetatik ihes egiteko; zoritxarrez, haurrak, nerabeak eta gazteak izan dira protagonistak. “Milaka haur izan dira heriotzen, sexu-bortxaketen eta irainen, bahiketen eta torturen biktima, eta etxeak utzi eta bandoetan lan egitera ere behartu dituzte. (...) Baina ez dira giza eskubideen bortxaketa ugariren lekuko soilik izan; izan ere, gehiegikeria horiek guztiak egitera ere behartu zituzten¹.”

Bong konderrria Monrovia hiriburutik bi ordura dago. Han zegoen herrialdeko lekualdatuen nukleo handienetako bat, eta 120.000 pertsona baino gehiago zeuden lekualdatuen zazpi esparruetan taldekatuta. Gerratik ihesi iritsi ziren Lofa konderritik; Lofa iparraldean dago, eta bertan hasi zen Taylorren aurkako matxinada. Gobernuak nahiz matxinoek erabili zituzten, borrokatzeko, borrokalarien fardelak eramateko, janaria prestatzeko, edo, kasurik txarrenetan, borrokalarien sexu-beha-

¹ HUMAN RIGHTS WATCH, *How to Fight, How to Kill, Child Soldiers in Liberia*. 2004ko otsaila, 16. liburukia, 2 (A) zenbakia.

rrak asetzeko. Ez zuten ihes egitea beste irtenbiderik bizitza edo duintasuna salbatzeko, eta familia eta lagunak utzi behar izan zituzten atzean. Elikagairik gabe eta gaixorik zeudenez, pertsona horietako asko bidean hil ziren, lekualdatuen esparrura iritsi aurretik.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak eskola publikoak kudeatu zituen Bongeko lekualdatuen esparruan, Hezkuntza Ministerioarekin batera; horrez gainera, lanbide-prestakuntzako programak ere eman zizkien gazteei eta helduei. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak esparru batean baino gehiagotan jardun zuen. Esparru horietako bat Salalako lekualdatuen esparrua izan zen; han, 30.000 pertsona inguru bizi izan ziren 3 urtez.



Salalako lekualdatuen esparrua

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua arduratzen zen Salalako lekualdatuen esparruko bi eskola publikoek (eremuko lekualdatuen gainerako esparruetan bezala), eta doako hezkuntza eta hezkuntza ez-diskriminatzailea bermatu zituen; neska-mutiko haietako askok ez zuten inoiz hezkuntzarik jaso. Ez dugu ahaztu behar hezkuntza publikoa ez dela doakoa Liberian. Bi eskoletan (Salala 1 eta Salala 2), 3.000 pertsona baino gehiago hartzen ziren ikasturteko. Bi saiotan ematen ziren eskolak: goizetan, 8etatik 12etara, txikienak joaten ziren, eta bi taldeetan banatuta zeuden, hau da, ABC (4-6 urte) eta KG (6-9 urte) taldeetan; eguerdian, 12:30etik 16:30era, nagusienak joaten ziren, eta 1. mai-latik 9. mailara banatuta zeuden.

Eskola-eraikina esparruko gainerako eraikinak bezala zegoen eraikita; hau da, makilez, lokatzez eta plastikoz; horregatik, aldizka, ekaitzen batek zatiren bat hondatzen zuen. Orduan, eten egiten ziren eskolak eta zehar-jarduera nagusienetako bat egiten zen: berreraikitze-lanak, hain zuzen ere. Ikasleek eta irakasleek berreraikitzen zuten eskola. Txikienetatik hasi eta nagusienetaraino, guztiek laguntzen zuten, eskoletan ahalik eta azkarren berrekiteko. Nagusienek lokatzezko hormak